

URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

IKASTETXEA	CPM FRANCISCO ESCUDERO MKP	KODEA	012681
IRAKASGAIA	PRAKTIKA INSTRUMENTALA. Flauta	MAILA	OINARRIZKO IRAKASKUNTZAKO 3 eta 4.MAILA

HELBURUAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK
<ul style="list-style-type: none"> a) Taldearen gorputz- eta zentzumen-ohitura hartzea. b) Entzumenaren taldearen barnean garatzea talde-afinazioaren oinarri gisa. c) Talde bakoitza eta osotasuna entzuteko ohituraz jabetzea. d) Taldearen barnean norberaren instrumentuaren tinbrea atzemateko ahalmenaz jabetzea, taldeko soinu -batasuna lortzearen. e) Ikusmen-eta entzumen- memoria garatzea, taldearen eta taldekidearen arteko komunikazio -bide izan dadin. f) Bat-batean irakurtzeko gaitasuna lantzen hasia g) Musika -eta giza- kontzeptuetan isiltasunak duen balioaz jabetzea. h) Ikaslearengan taldekako instrumentu-praktikaren ideia sustatzea, musika-hezkuntzarako eta pertsonen arteko harremanetarako ohitura gisa. i) Talde instrumentaletik abiatuz, interprete-entzule harremanaren oinarriak ezartzea. j) Talde barneko dinamikaren diziplina garatzea. k) Talde jardun ororako arauak ezagutzea: aurretiazko afinazioa, etengabeko arreta, entzuleen, zuzendariaren eta taldekideen aurreko jardueran kontutan hartu beharreko puntuak. l) Talde barneko erantzukizun indibidualaz jabetzea. 	<ul style="list-style-type: none"> 1.- Instrumentu-afinazioaren praktika, talde-afinazioaren arabera. Irizpide honen bidez, ikasleak bere instrumentuaren eta bestearen tinbrea atzemateko duen gaitasuna neurtu nahi da, talde-afinazioaren oinarri denez, taldearen soinu-batasuna indartzeko. 2.- Ikasleak taldearekiko duen lotura-erlazioa. Ikasleak zuzendariari, bere kideei edo entzuleei jartzen dien arreta eta taldearekiko duen egokitzapena neurtzeko erabiliko irizpide hau. 3.-Ikasturtean bere sekzioan eta instrumentu-familian programatutako edozein obra interpretatzea. Ikasturtean zehar, bere sekzio edo instrumentu-familiari egokitzeko duen gaitasuna eta, era berean, zuzendariaren anakrusaren arabera eraso eta sarrerak zehazteko duena neurtzen da. 4.- Programatutako errepertorioan dauden lanak nork bere kasa lantzea. Ikasleak taldekide moduan duen erantzukizuna, taldearen partaide denez duen autoestima, zuzendari eta taldekideei dien errespetua eta musika-ikasketari dion atxikimendua neurtzen dira irizpide honen bitartez.

EDUKIEN SEKUENTZIA

Afinazioa:

-Aurretizko afinazioa.

-Taldea eta familiaren afinazioa. Etengabeko kontrola.

Taldeko dinamika eta erritmoa.

Isiltasuna: musika zati garrantzitsua

Taldean ikaslearen integrazio rogesiboa: bere instrumentoarekin, instrumentu familiarekin eta sekzioarekin.

Soinua. Kantitatea eta kalitatea.

Gorputz-posizioa: Kontrola, naturaltasuna eta erlajazioa.
 Musikarekiko gozamina: guztien balorea. Ikasketa
 Anakrusa keinu bezala. Erabilera praktikoa estudioan.
 Atakeak, azentuak eta beste oharrak. Erabilera praktikoa familian.
 Talde-eta arau- portaerak.
 P.I. estudioa etxean. Ohiturak lortu.
 Errepertorio-interpretazioa.
 Ez dago material aukeraketa bakarra baizik eta egokituko da era ordenatu eta egoki batean talde bakoitzarekin, sail edo landutako familiarekin. Materiala ekintza bakoitzaren garapen araberan aurkeztuko da.
EDUKIN MINIMOAK:
 Gutxinez talde instrumentala jendeaurrekiko bi audizioetan parte-hartzea.

METODOLOGIA

Metodologia, entsaioetan oinarrituko da (partzialak eta/edo orokorrak) non eta irakasle/ irakasleek jarraibideak eta azalpenak emango dute ikasleak errepertorio-programa egin dezaten. Halaber, ikasleak kurso prozesuan auto-ebaluazioan eta ko-ebaluazioan parte hartzea sustatuko da, horrela ikasleen autonomia eta autokritika sustatuko da eta beraien inplikazio- ardura ikasketa prozesuan. Horrek, iritziak lantzeko elementuak eta irizpide pertsonalak sortzeko eragingo die atzitzen ari diren alderdi musikal ezberdinetan eta horren bitartez ahalko dute sortu beraien ikuspuntu musikala eta instrumentu berekoietaz.

<ul style="list-style-type: none"> - Ordena eta astean zehar eskatutako lana ondo ikasita ekartzea kontuan hartuko da - Ebaluatze orduan, ikaslearen interesa eta inplikazioa funtsezko irizpidea - Hiruhilabeteko lanarekin entzunaldi txiki bat (irekia edo klasean) ebaluazio bakoitzaren bukaeran egingo da. <p> ** Ebaluazio bakoitzaren amaieran entzunaldi txiki bat egitea (irekia edo klasean), hiruhilekoan zehar landutako alderdiei buruzkoa. </p>	<p>Jarrerari dagozkionak (% 25)</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jarrera eta interesa. Instrumentua ordenatzea eta zaintzea - Autonomia problemak aztertu eta ebazteko antolamenduan. Autokritika. - Erregularitasuna azterlanean. Progresioa ikaskuntzan. <p> Ordena gelako koadernoan. Jardueretan parte hartzea (hasierako ebaluazioa, entzunaldi irekiak, proba teknikoak, kontzertuak, etab.). </p> <p>Hizkuntzari buruzkoak (%15)</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntzaren elementuen ezagutza eta ezagutza instrumentistikoak: - Obrak eta/edo azterlanak ulertzea, barneratzea eta buruz ikastea
---	--

	Teknikari eta musikaltasunari buruzkoak (% 60) - Posizioa, arnasketa, erlaxazioa (% 20) - Emisioa, soinua eta afinazioa (% 20) - Digitazioa, artikulazioa. Malgutasuna (% 20)
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK	
<p>Ikasleek gutxieneko puntuazio bat lortu behar dute 5 batekin ikasgaia gainditzeko. Puntuazio hau ez duten gainditzen ikasleek edo ebaluazio jarraia galdu dutenek, errekupezioko ekintza bat egin beharko dute. Froga hau jendeaurreko audizio ireki batean interpretazio bat egitea beste ikasle batekin (ikasle hau ikasle berak eramango du) eskatuko zaio, irakasleak fitxa batean adierazitako errekupezioko materialak azkeneko ebaluazioan emango zaiona.</p> <p>Halaber, irakasleak egindako hiru galdereei erantzun beharko ditu, kurtsoko edukinetan oinarritutak egongo direnak.</p> <p>Froga bakoitza azkeneko kalifikazioko %50 izango da.</p>	

*** AURREZ AURREKO JARDUERA ETETEA**

Jarduera presentziala eteten bada, online irakaskuntzaren bidez ordeztuko da, eta presentzialaren baliokidea izango da.

Ahalegina egingo da, inguruabarrak adostuta betiere, eskolen ordutegi bera eta, jakina, egutegia mantentzeko.

Programazio honen amaierako baliabide didaktikoen atalean adierazten den bezala, online eskoletarako ezinbestekoa izango da material elektronikoa izatea (bideoa, CDa, eramangarria edo mugikorra, etab.), Google-Suiteko tresnak (erabiliko den plataforma digitala) erabili ahal izateko. Posta korporatiboa erabili beharko da.

Banakako lanaren zirriborroa bidaliko da, eta bertan zehaztuko dira egin eta bidali beharreko ariketen, obren eta/edo azterlanen asteroko grabazioak.

Erabilitako baliabide didaktikoak online eskolak eta grabazioak (ikus-entzunezkoak) izango dira.

Edukien sekuentziak, ebaluazio-irizpideak eta ebaluazio-irizpideak ez dira aldatuko.

**** ENTZUNALDIAK EGITEKO EZINTASUNA**

Entzunaldiak egiteko balizko/balizko ezintasun baten aurrean, haren ordeztu **online entzunaldiak eta/edo bideo-grabazioak egingo dira, aurrez aurrekoaren baliokideak.**